			6.2.4. Estandarización de documentos. (0-100%)	100	100	Teniendo en cuenta los documentos que se pueden estandarizar.
		6.3. CIUDANANIA y SERVICIO: La gestión lingüística está integrada en las relaciones con la ciudadanía y en el desarrollo de los productos/ servicios. <u>Objetivo:</u> Integrar la lengua en los procesos de los servicios de la entidad.	Nivel de cumplimiento de los criterios para el Uso de las Lenguas Oficiales (HOEI). (0-100%)	73	80	Gazt: 27 / Gazt: 20



V. - JARRAIBIDEAK: Hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideak; Lanpostuen hizkuntza baldintzak ezartzeko jarraibideak; eta Hizkuntzaren kudeaketa Donostia Hileta Zerbitzuak, SAren kudeaketa orokorrean txertatzeri buruzko jarraibideak.

V.- CRITERIOS: Criterios de uso de las lenguas oficiales; Criterios para la asignación de condiciones lingüísticas de los puestos de trabajo y capacitación lingüística del personal; y Criterios para incluir la gestión de las lenguas en la gestión general de Servicios Funerarios Donostia – San Sebastián, SA.



AURKIBIDEA / ÍNDICE

0. Sarrera	33 or.
Introducción	
I. ARDATZA: ZERBITZU HIZKUNTZA	34 or.
EJE I: LENGUA DE SERVICIO	
1. Erakundearen irudia	34 or.
Imagen de la institución	
1.1. Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak	34 or.
Rotulación y audiovisuales	
1.1.1. Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak	34 or.
Rotulación y audiovisuales	
1.1.1.1. Toponimia	35 or.
Toponimia	
1.1.1.2. Ikus-entzunezkoak	35 or.
Audiovisuales	
1.2. Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak	35 or.
Marketing, publicidad y actos públicos	
1.2.1. Argitalpenak, iragarkiak, publizitate kanpainak, prentsa oharrak eta paper gauzak	35 or.
Publicaciones, anuncios, campañas publicitarias, notas de prensa y papelería	
1.2.1.1. Argitalpenak eta ikus-entzunezkoak	35 or.
Publicaciones y audiovisuales	
1.2.1.2. Iragarkiak, publizitatea eta kanpainak	36 or.
Anuncios, publicidad y campañas	
1.2.2. Jendaurreko ekitaldiak eta jarduerak	36or.
Actos públicos y actividades	
1.3. Ingurune digitala	38 or.
Entorno digital	
1.3.1. Webgune eta sare sozial eta APPen edukia	38 or.
Contenido de las páginas web, redes sociales y APPs	
1.3.1.1. Webguneak	38 or.
Páginas web	
1.3.1.2. Sare sozialak	38 or.
Redes sociales	
1.3.1.3. Mugikorretako APPak	39or.
Las APPs para los móviles	
1.3.1.4. Helbide elektronikoak	39 or.
Direcciones de correo electrónico	



2. Bezeroekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko harremanak.....	39 or.
Relaciones con la clientela (personas físicas) y la ciudadanía	
2.1. Bezero (pertsona fisikoak) edo herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan	39 or.
Relación escrita con la clientela (personas físicas) o la ciudadanía a la hora de dar servicios u ofrecer productos	
2.1.1. Idatzizko harremanak	39 or.
Relaciones escritas	
2.1.2. Euskarazko eskaerari euskaraz emandako erantzunak	39 or.
Respuestas dadas en euskera a las solicitudes en euskera	
2.1.2.1. Erregistroa	39 or.
Registro	
2.2. Bezeroekiko (pertsona fisikoak) edo herritarrekiko ahozko harremana zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan	40 or.
Relación oral con la clientela (personas físicas) o la ciudadanía a la hora de dar servicios u ofrecer productos	
2.2.1. Harrera	40 or.
Atención	
2.2.2. Telefonoz, online eta aurrez aurre	40 or.
Relaciones telefónicas, online y presenciales	
2.2.3. Euskarazko eskaerari euskaraz emandako erantzuna	40 or.
Respuestas dadas en euskera a las solicitudes en euskera	

II. ARDATZA: LAN HIZKUNTZA

EJE II: LENGUA DE TRABAJO

3. Barne komunikazioa eta lan tresnak	40 or.
Comunicación interna y herramientas de trabajo	
3.1. Lanari lotutako hizkuntza paisaia	40 or.
Paisaje lingüístico ligado al trabajo	
3.1.1. Lanari lotutako hizkuntza paisaia	40 or.
Paisaje lingüístico ligado al trabajo	
3.2. Idatzizko komunikazio bertikala eta horizontala	40 or.
Comunicación escrita vertical y horizontal	
3.2.1. Informaziorako edota komunikaziorako tresnak.....	41 or.
Instrumentos para la información y la comunicación	
3.2.2. Lan bileretako idatziak	41 or.
Los documentos escritos de las reuniones de trabajo	
3.2.3. Erakundearen barne harremanetarako idatziak	41 or.
Los escritos de las relaciones internas	
3.3. Ahozko komunikazio bertikala eta horizontala	42 or.
Comunicación oral vertical y horizontal	
3.3.1. Erakundearen barruko lan bileretako ahozkoak	42 or.
La comunicación oral de las reuniones de trabajo internas	
3.3.2. Erakundearen barruko telefonozko harremanak	42 or.
La comunicación telefónica interna	
3.3.3. Erakundearen barruko aurrez aurreko harremanak	43 or.



Relaciones presenciales internas

3.4. Baliabide informatikoak	43 or.
Recursos informáticos	
3.4.1. Euskarazko bertsioren instalazio kopurua	43 or.
Cantidad de instalaciones de las versiones en euskera.	
3.4.2. Euskarazko bertsioren erabilera	43 or.
Uso de las versiones en euskera	
4. Pertsonen kudeaketa	43 or.
Gestión de personas	
4.1. Pertsonen kudeaketa	43 or.
Gestión de personas	
4.1.1. Pertsonen kudeaketa	43 or.
Gestión de personas	
4.2. Laneko prestakuntza	43 or.
Formación laboral	
4.2.1. Laneko prestakuntza	43 or.
Formación laboral	
4.2.2. Ikastaroen kudeaketa	44 or.
Gestión de los cursos	
5. Kanpo harremanak	44 or.
Relaciones externas	
5.1. Administrazioa	44 or.
Administración	
5.1.1. Administrazioekiko idatzizko harremanak	44 or.
Relaciones escritas con las administraciones	
5.1.2. Administrazioekiko ahozko harremanak	44 or.
Relaciones orales con las administraciones	
5.2. Erakunde pribatuak: Bezeroak (pertsona juridikoak), finantza entitateak, produktu eta zerbitzu hornitzaileak eta abar.	45 or.
Instituciones privadas: clientela (personas jurídicas), entidades financieras, proveedores/as de productos y servicios, etc.	
5.2.1. Idatzizko harremanak erakunde pribatuekin	45 or.
Relaciones escritas con las instituciones privadas	
5.2.2. Ahozko harremanak erakunde pribatuekiko	45 or.
Relaciones verbales con las instituciones privadas	
5.3. Bestelako harremanak: aliatuak, taldeko enpresak, erakunde kolaboratzaileak..... eta abar.	45 or.
Otras relaciones: entidades aliadas, empresas del grupo, instituciones colaboradoras, etc.	
5.3.1. Beste entitateekiko idatzizko harremanak	45 or.
Relaciones escritas con otras entidades	
5.3.2. Beste entitateekiko ahozko harremanak	45 or.
Las relaciones verbales con otras entidades	



6. Kudeaketa sistema	46 or.
Sistema de gestión	
6.1. Estrategia: hizkuntzen kudeaketa kudeaketa-sistema orokorrean integratzea	46 or.
Estrategia: integración de la gestión de lenguas en el sistema de gestión general	
6.1.1. Hizkuntzen kudeaketarako planteamendua, epe luzerako ikuspegiarekin eta epe ertain edota laburrerako helburuekin, eta horren ebaluazioa	46 or.
El planteamiento de la gestión de las lenguas, con la visión a largo plazo y los objetivos a corto y medio plazo, y su evaluación.	
6.1.1.1. Helburu orokorrak	46 or.
Objetivos generales	
6.1.1.2. Metodologia	47 or.
Metodología	
6.1.1.3. Jarraipena eta ebaluazioa	47 or.
Seguimiento y evaluación	
6.1.2. Hizkuntzen kudeaketaren planteamendua gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak	47 or.
Recursos necesarios para llevar a término el planteamiento de la gestión de las lenguas	
6.1.2.1. Giza baliabideak	47 or.
Recursos humanos	
6.1.2.2. Normalizazio ekintzak	47 or.
Actuaciones de normalización	
6.1.2.3. Itzulpena	49 or.
Traducción	
6.1.2.4. Interpretazio zerbitzua	49 or.
Servicio de interpretación	
6.2. Bezeroak edo herritarrak eta produktua edo zerbitzua	50 or.
Clientela o ciudadanía y producto o servicio	
6.2.1. Bezeroak edo herritarrak, zerbitzuak edo produktuak eta hornitzaileen kudeaketa ...	50 or.
Clientela o ciudadanía, servicios o productos y gestión de proveedores/as	
6.2.1.1. Administrazio kontratuak	50 or.
Contratos administrativos	
6.2.1.2. Erosketak	51 or.
Compras	
6.2.1.3. Donostia Hileta Zerbitzuak, SAren instalazioen eta materialen erabilera	51 or.
Uso de instalaciones y materiales de Servicios Funerarios Donostia – San Sebastián, SA	
6.2.1.4. Jarduerak bide publikoan	51 or.
Actividades en la vía pública	
6.3. Pertsonak: hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea	52 or.
Personas: integrar la gestión de lenguas en la gestión del personal	
6.3.1. Langileen kontratazioa eta barne sustapena	52 or.
Contratación del personal y promoción interna	
6.3.1.1. Lanpostuen hizkuntza baldintzak	52 or.
Condiciones lingüísticas de los puestos de trabajo	
6.3.2. Lidergoa eta parte-hartzea	52 or.
Liderazgo y participación	
6.3.2.1. Administrazioa hizkuntza normalizazioan eredu	52 or.



La Administración como modelo de la normalización lingüística

6.3.2.2. Antolakuntza egiturak	53 or.
Estructuras organizativas	

ERANSKINAK ANEXOS

I. ERANSKINA:

Euskara nabarmentzeko bideak Donostia Hileta Zerbitzuak, SAko Euskara Planaren eraginpeko komunikazio, argitalpen, iragarki, publizitate kanpaina eta gainerako euskarrietan

54 or.

ANEXO I: medidas para destacar el euskera en las comunicaciones, publicaciones, anuncios, campañas publicitarias y demás soportes comunicativos pertenecientes

al ámbito de aplicación del Plan de Euskera de Servicios Funerarios Donostia – San Sebastián, SA

- | | |
|--|---------------|
| a) Idazkiak eta errotuluak | 54 or. |
| Textos escritos y rótulos | |
| b) Argitalpenak (liburuxkak, idatzizko publizitatea...) | 55 or. |
| Publicaciones (folletos, publicidad escrita...) | |
| c) Kartelak, posterrak eta antzekoak | 56 or. |
| Carteles, pósteres y similares | |
| d) Eskuorri eta antzekoak | 56 or. |
| Trípticos y similares | |
| e) Ikus-entzunezkoak eta ahozko publizitatea | 57 or. |
| Audiovisuales y publicidad oral | |

II. ERANSKINA: toponimoen erabilera

ANEXO II: uso de los topónimos

- | | |
|--|---------------|
| a) Toponimia finkatzeko prozedura | 58 or. |
| Procedimiento de fijación de la toponimia | |
| b) Toponimoen erabilera udal espedienteetan | 58 or. |
| Uso de topónimos en expedientes municipales | |
| c) Antzeko grafia duten euskarazko eta gaztelaniazko toponimoak | 59 or. |
| Topónimos con formas parecidas en euskera y castellano | |

III. ERANSKINA: errotulazio finkoak, tresneria eta papertegia

ANEXO III: rotulación permanente, aparatos y máquinas, y papelería

- | | |
|-------------------------------------|---------------|
| a) Errotulazio finkoak | 60 or. |
| Rotulación permanente | |
| b) Tresneria | 60 or. |
| Aparatos y máquinas | |
| c) Papertegia | 60 or. |
| Papelería | |

IV. ERANSKINA: baliabide informatikoei buruzko xehetasunak

ANEXO IV: criterios específicos para recursos informáticos

- | | |
|---|---------------|
| a) Ordenagailuak, telefonoak, tabletak | 61 or. |
| Ordenadores, teléfonos, tablets... | |
| b) Telefono mugikorretako APPak | 61 or. |
| APPs de telefonía móvil | |



V. ERANSKINA: administrazio kontratuen araberako hizkuntza klausulak.....	62 or.
ANEXO V: Cláusulas lingüísticas en función del tipo de contrato administrativo	
a) Zerbitzuen emakidak eta Zerbitzuak	62 or.
Concesión de servicios y Servicios	
b) Obren emakidak eta Obrak	64 or.
Concesión de obras y Obras	
c) Hornidurak	64 or.
Suministros	
d) Kontratu txikiak	64 or.
Contratos menores	
VI. ERANSKINA: Lanpostuei hizkuntza baldintzak edo betekizunak ezartzeko prozedura eta jarraibideak.....	66 or.
ANEXO VI: Procedimiento y criterios para la asignación de las condiciones y requerimientos lingüísticos de los puestos de trabajo	
a) Lanpostuei hizkuntza baldintzak edo betekizunak ezartzeko prozedura.....	66 or.
Procedimiento para la asignación de las condiciones y requerimientos lingüísticos de los puestos de trabajo	
b) Lanpostuei hizkuntza baldintzak edo betekizunak ezartzeko jarraibideak.....	66 or.
Criterios para la asignación de las condiciones y requerimientos lingüísticos de los puestos de trabajo	
c) Lanpostuen euskara mailak.....	68 or.
Nivel de euskera de los puestos de trabajo	



0. Sarrera

Donostia Hileta Zerbitzuak, SAren Plan Estrategikoan zehaztutako helburu horiek lortzeko ezinbesteko gidari izango dira ondorengo orrietan ematen diren jarraibideak. Ondoko ideia nagusiak garatzen dira jarraibide horietan:

- **Donostia Hileta Zerbitzuak, SAren jardun esparru guztietan (ahozkoan, idatzizkoan, argitalpenetan, ekitaldietan, kontratazioetan....) bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko jarraibideak.** Irizpide nagusia da egoerak ahalbidetzen duen guztietan euskara erabiltzea, betiere herritarren hizkuntza eskubideak bermatuz. Aurreko plangintza aldiko jarraibide berberak dira, baina xehetasun gehiagoarekin jaso dira eta, plangintza aldi honetan, ahalegin berezia egin nahi da gaitasuna dagoen guztietan euskara sortze hizkuntza izan dadin, horretarako langileei beharrezko laguntza eskainiz.

- Hizkuntzaren ezagutza orokortzeko, **lanpostuen hizkuntza baldintzak zehazteko jarraibideak.** Aurreko plangintza aldiko jarraibide berberak dira.

- **Hizkuntzaren kudeaketa Donostia Hileta Zerbitzuak, SAren kudeaketa orokorrean txertatzeri buruzko jarraibideak.** Euskara Plana Gobernuaren Plan Estrategikoa da, eta gainera, zeharkakoa. Donostia Hileta Zerbitzuak, SAren eginkizunen garapenerako kudeaketa tresnetan hizkuntzen kudeaketa zehar lerro gisa txertatzeko neurriak hartuko dira. Hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko erabakia erakundearena da.

0. Introducción

Los criterios aportados en las siguientes páginas serán el hilo conductor del sexto periodo de planificación para lograr los objetivos propuestos en el Plan Estratégico de Servicios Funerarios Donostia – San Sebastián, SA. Las ideas principales de dichos criterios son:

- **Criterios de uso de las dos lenguas oficiales en todos los ámbitos de actividad de Servicios Funerarios Donostia – San Sebastián, SA (oral, escrita, publicaciones, eventos, contrataciones...).** El criterio básico es utilizar el euskera en todas las situaciones que lo posibiliten, garantizando en todo momento los derechos lingüísticos de la ciudadanía. Son los mismos criterios del periodo de planificación anterior, más detallados. Además en este periodo de planificación se quiere hacer un especial esfuerzo para que los textos se creen en euskera en todos los casos en que exista competencia lingüística. Para ello se ofrecerá al personal el apoyo que necesite.

- **Criterios para la asignación de condiciones lingüísticas de los puestos de trabajo** con el fin de generalizar la competencia lingüística. Dichos criterios son los mismos del periodo de planificación anterior.

- **Los criterios para incluir la gestión de las lenguas en la gestión general de Servicios Funerarios Donostia – San Sebastián, SA.** El Plan de Euskera es el Plan Estratégico del Gobierno, y además es transversal. Se tomarán medidas para insertar la gestión de las lenguas como línea transversal en las herramientas de gestión de los cometidos de Servicios Funerarios Donostia – San Sebastián, SA. Corresponde a la institución decidir sobre el uso de las lenguas oficiales.



I. ARDATZA: ZERBITZU HIZKUNTZA

Euskara desabantaila egoeran dagoen hizkuntza da eta, horretaz jabeturik, Donostia Hileta Zerbitzuak, SA ekintza positiboak sustatu eta euskararen aldeko neurriak hartuko ditu hizkuntza indartu eta normalizatzeko helburuz. Horrela, herritarren eskubidea bermatuko du Donostia Hileta Zerbitzuak, SArekiko harremanetan hizkuntza ofiziala aukeratzeko eta hizkuntza horretan artatuak izateko.

Beraz, euskara soilik erabiliko da, baldin eta hartzaileak edo eragindakoak diren herritarren eskubideak bermatuta badaude.

1. Erakundearen irudia

1.1. Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak

1.1.1. Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak

Errotulu finkoak eta noizbehinkako oharrak (askotan paperean egindakoak) euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz edo, behar izanez gero, hizkuntza gehiagotan agertuko dira, euskarari lehentasuna emanez, bulego eta egoitza guztietako kanpoaldean nahiz barrualdean.

Euskaraz idatziko da errotulu eta ohar horietako testua, kasu hauetan:

- a) Hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean.
- b) Mezuak piktograma batez lagundurik agertzen direnean eta horren bitartez erraz ulertzen direnean.
- c) Zuzendaritzaren edo ezagutzera ematen den jardueraren izaerak edo hartzaileen berezitasunek ahalbidetzen dutenean, eta betiere aurrez aipatutako baldintzak betez gero.

Bi hizkuntza ofizialez gain, beste hizkuntzetan ere egin behar denean, hurrenkera hau erabiliko da: euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa.

Jarraibide horiek beteko dira, halaber, honako hauetan: Donostia Hileta Zerbitzuak, SAren organo, zuzendaritza, egitarau, proiektu, jarduera eta ekintza guztien izen ofizialetan; seinaleztapenean, papertegiko elementu idatzi finkoetan; tresneriako azalpenetan.

Errotulu finkotzat, papertegiko elementutzat eta tresneriatzat zer jotzen den jakiteko III. eranskinera joko da. Idazki elebidun edo eleaniztunetan euskara nola nabarmendu behar den jakiteko, berriz, plan

EJE I: LENGUA DE SERVICIO

Servicios Funerarios Donostia – San Sebastián, SA, consciente de que el euskera está en una situación de desventaja, trabajará para la promoción y normalización del euskera, adoptando medidas de acción positiva en favor de dicha lengua, garantizando en todo caso, el derecho de los ciudadanos y las ciudadanas a escoger la lengua oficial en la que se relacionan con Servicios Funerarios Donostia – San Sebastián, SA y el cumplimiento del deber de atenderles en la lengua escogida.

A estos efectos, se utilizará únicamente el euskera, siempre y cuando exista garantía del cumplimiento de los derechos de los ciudadanos y ciudadanas destinatarias o afectadas.

1. Imagen de la institución

1.1. Rotulación y audiovisuales

1.1.1. Rotulación y audiovisuales

Los rótulos fijos y los avisos ocasionales (realizados con frecuencia en papel) se mostrarán, tanto en el interior como en el exterior de todas las oficinas y dependencias, en euskera, en euskera y castellano o, si es necesario, en más lenguas, dando prioridad al euskera.

El texto de esos rótulos y avisos se escribirá en euskera en los siguientes supuestos:

- a) Cuando las palabras tengan una grafía semejante en euskera y castellano.
- b) Cuando los mensajes vayan acompañados de pictogramas que faciliten su comprensión.
- c) Cuando así lo permitan el carácter del departamento, la actividad a comunicar o las particularidades de las personas destinatarias, siempre que sea en los términos antes indicados.

Cuando además de las dos lenguas oficiales también haya que utilizar otras lenguas, se seguirá este orden: euskera, castellano, francés e inglés.

También se actuará conforme a esos criterios en los siguientes supuestos: en los nombres oficiales de todos los órganos, direcciones, programas, proyectos, actividades y actos de Servicios Funerarios Donostia – San Sebastián, SA; en la señalética, en los elementos escritos fijos de la papelería; en las instrucciones de las máquinas.

Para saber qué se entiende por rótulo fijo, papelería y máquinas se consultará en el anexo III.



honen I. eranskineko argibideetara edo Euskara Zerbitzura joko da.

1.1.1.1. Toponimia

Donostiako kale, bide, auzo, auzune, mendi, ibai eta erreken izendegi ofiziala, eta, oro har, toponimoak, Donostiako Udalak finkatuko ditu, jatorrizko hizkuntza (euskara, gaskoia, gaztelania, etab.) eta haren grafia akademikoa errespetatuz. Toponimoak nola erabili jakiteko, plan honen II. eranskineko argibideetara joko da.

1.1.1.2. Ikus-entzunezkoak

Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuak, bozgorailuz, audioa duten tresnez eta antzeko bitartekoez zabaldukoak, lehenik euskaraz eta ondoren gaztelaniaz emango dira. Komunikazio horiek euskaraz egingo dira hartzaileen ezaugarriek hala ahalbidetzen dutenean eta betiere aurrez aipatutako baldintzak betez gero.

Haurrei zuzendutako udal instalazio eta eraikinetako megafonia bidezko audioa eta musika, oro har, euskarazkoak izango dira, eta gainerako adin taldeei zuzendutakoak direnean, euskarazkoen kopurua gainerako hizkuntzekiko orekatua izango da, eta betiere aurrez aipatutako baldintzak betez gero.

1.2. Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak

1.2.1. Argitalpenak, iragarkiak, publizitate kanpainak, prentsa oharrak eta paper gauzak

1.2.1.1. Argitalpenak

Donostia Hileta Zerbitzuak, SA euskarri fisikoan nahiz digitalean argitaratzen dituen aldizkari, liburu, mapa, plano eta zabalkunderako argitalpenak euskaraz, betiere aurrez aipatutako baldintzak betez gero, edo bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, eta haietan euskarari lehentasuna emango zaio.

Argitalpenaren berriazko ezaugarriek, izaerak eta jasotzaileek (adina, hizkuntza gaitasuna, esparrua...) hala eskatzen dutenean, argitalpena euskaraz egingo da, eta betiere aurrez aipatutako baldintzak betez gero.

Bi hizkuntza ofizialez gain, argitalpenak beste hizkuntzetan ere egin behar direnean, hurrenkera hau erabiliko da: euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa.

Argitalpenaren banaketa Euskal Autonomia Erkidegotik, Nafarroatik eta Ipar Euskal Herritik

Por otra parte, para saber cómo destacar el euskera en los escritos bilingües o multilingües, se consultará en las instrucciones del anexo I o en el Servicio de Euskera.

1.1.1.1. Toponimia

La nomenclatura oficial y, en general, los topónimos de las calles, carreteras, barrios, barriadas, montes, ríos y riachuelos de San Sebastián los establecerá el Ayuntamiento de San Sebastián, respetando la lengua original (euskera, gascón, castellano, etc.) y su grafía académica. Para saber cómo utilizar los topónimos, se consultará en las instrucciones del anexo II.

1.1.1.2. Audiovisuales

Los mensajes orales dirigidos a personas indeterminadas comunicados por altavoz, dispositivos con audio o medios parecidos se emitirán primero en euskera y después en castellano. Esas comunicaciones se llevarán a cabo en euskera cuando las características de las personas receptoras así lo permita, siempre que sea en los términos antes indicados.

El audio y la música que se reproduzca por megafonía en las instalaciones municipales dirigidos al público infantil se emitirá por norma general en euskera, y cuando se dirijan al resto de grupos de edad habrá equilibrio entre la proporción de emisiones en euskera y las emitidas en otras lenguas, siempre que sea en los términos antes indicados.

1.2. Marketing, publicidad y actos públicos

1.2.1. Publicaciones, anuncios, campañas publicitarias, notas de prensa y papelería

1.2.1.1. Publicaciones

Todas las publicaciones que haga Servicios Funerarios Donostia – San Sebastián, SA en soporte físico o digital de revistas, libros, mapas, planos y demás publicaciones de difusión se harán en euskera, siempre que sea en los términos antes indicados o en las dos lenguas oficiales, dando prioridad al euskera.

Dependiendo de las características específicas, del carácter de las publicaciones y de las personas receptoras (edad, competencia lingüística, sector...), cuando la realidad así lo requiera, se harán las publicaciones en euskera, siempre que sea en los términos antes indicados.

Cuando además de las dos lenguas oficiales, también haya que utilizar otras lenguas en las publicaciones, se seguirá este orden: euskera, castellano, francés e inglés.



kanpo egiten denean, Estatuan eta Nazioartean, bertako hizkuntzaz gain, euskararen erabilera sinbolikoa egingo da.

Testu horien egokitasuna eta hizkuntza zuzentasuna bermatzea argitalpenaz arduratzen den zuzendaritzaren edo atalaren erantzukizuna da.

Euskara nabarmentzeko, berriz, I. eranskinean agertzen diren bideak erabiliko dira.

1.2.1.2. Iragarkiak, publizitatea eta kanpainak

Donostia Hileta Zerbitzuak, SAren iragarki ofizialak eta gainerako publizitate ekintzak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, eta euskarari emango zaio lehentasuna.

Euskaraz egingo dira, oro har, haurrei eta nerabeei zuzendutakoak, baita hartzailearen ezaugarriek (adina, hizkuntza gaitasuna, esparrua...) edo gaiak hala eskatzen dutenean ere. I. ardatz honen hasierako bi paragrafoetan jasotzen den moduan, betiere, baldin eta hartzaileen eskubideak bermatuta badaude.

Bi hizkuntza ofizialez gain, beste hizkuntzetan ere egin behar denean, hurrenkera hau erabiliko da: euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa. Kanpainetako edukiak eta esloganak bi hizkuntza ofizialetan edo gehiagotan egin behar direnean, ez dira hizkuntza batean sorturikoaren itzulpen soila izango. Hizkuntza bakoitzaren ezaugarriak zainduz, batean zein bestean, mezu egokiak, ulergarriak eta zuzenak izango dira.

Zabalkundeari begira, iragarkiak, publizitatea eta kanpainak euskaraz argitaratu edo emango dira euskarazko hedabideetan.

Irizpide orokor horiez gain, komunikazio ekintzaren arabera (ahozko eta idatzizko publizitatea, kartelak, posterrak, eskuorriak, liburuxkak eta abar), I. eranskinean agertzen diren berriazko jarraibideak ere bete beharko dira.

1.2.2. Jendaurreko ekitaldiak eta jarduerak

a) Donostia Hileta Zerbitzuak, SAk antolatutako ekitaldi instituzionaletan (prentsaurreko, sari banaketa, aurkezpen, herritarrekin egindako bilera eta abarretan), euskara edo bi hizkuntza ofizialak erabiliko dira, euskarari lehentasuna emanez, betiere aurrez aipatutako baldintzak betez gero.

Donostia Hileta Zerbitzuak, SAk euskara gaitasun egokiko pertsonak izendatuko ditu halako

Cuando la divulgación se haga fuera de la Comunidad Autónoma Vasca, Navarra e Iparralde, tanto en el Estado como en el ámbito internacional, además de la lengua local se utilizará el euskera de forma simbólica.

La adecuación y corrección lingüística de dichos textos serán responsabilidad de la dirección o unidad administrativa a quien corresponda la publicación.

Para destacar el euskera se utilizarán los recursos que se señalan en el anexo I.

1.2.1.2. Anuncios, publicidad y campañas

Los anuncios oficiales y demás actos publicitarios de Servicios Funerarios Donostia – San Sebastián, SA se realizarán en euskera o en las dos lenguas oficiales, dando prioridad al euskera.

Se realizarán como norma general en euskera cuando vayan dirigidos a niñas y niños o a adolescentes, o cuando así lo requieran las características de las personas destinatarias (edad, capacitación lingüística, ámbito...) o el contenido de dichos anuncios, que tal y como se recoge en los dos párrafos del inicio de este Eje I será siempre y cuando exista garantía del cumplimiento de los derechos de las personas destinatarias.

Cuando además de las dos lenguas oficiales también haya que utilizar otras lenguas, se seguirá este orden: euskera, castellano, francés e inglés.

Cuando los mensajes y los eslóganes de las campañas se realicen en las dos lenguas oficiales o en más lenguas, no serán traducciones literales de mensajes concebidos en una sola lengua. Se crearán mensajes comprensibles y adecuados atendiendo a las características propias de cada lengua.

En cuanto a su difusión, los anuncios, la publicidad y las campañas en los medios de comunicación en euskera se publicarán o se darán a conocer en dicha lengua.

Además de esos criterios generales, dependiendo del acto comunicativo (publicidad oral y escrita, carteles, pósteres, folletos, cuadernillos, etc.), también habrá que cumplir con los criterios específicos del anexo I.

1.2.2. Actos públicos y actividades

a) En los actos institucionales organizados por Servicios Funerarios Donostia – San Sebastián, SA (ruedas de prensa, entregas de premios, presentaciones, reuniones con la ciudadanía...) se utilizará el euskera o las dos lenguas oficiales, dando prioridad al euskera, siempre que sea en los términos antes indicados.



ekitaldietarako.

b) Donostia Hileta Zerbitzuak, SAren zuzendaritza eta zerbitzuek antolatutako orotariko jardueretan (emanaldi, ikastaro, lantegi, jardunaldi, hitzaldi, mahai inguru, festa, bisita gidatu, erakusketa eta abarretan) euskara sustatzeko neurriak hartuko dira.

c) Euskara sustatzeko neurriak Donostia Hileta Zerbitzuak, SAren Planaren eraginpeko jendaurreko ekitaldi eta jardueretan honako hauek izango dira:

- Hurrei, nerabeei eta gazteei zuzendutako jarduerak oro har euskaraz antolatuko dira. Nolanahi ere, jardueraren helburuak, gaiak edo hartzaileak aintzat harturik gaztelaniaz edo jatorrizko hizkuntzan ere antolatu ahal izango dira, betiere hartzaileen hizkuntza eskubideak betez gero.

- Ekitaldietan edo jardueretan bi hizkuntza ofizialak erabiltzen direnean, hurrenkera hau erabiliko da: lehenik euskaraz eta ondoren gaztelaniaz. Ekitaldia Ipar Euskal Herrian bada, lehenik euskaraz eta ondoren frantsesez. Bi hizkuntza ofizialez gain, ekitaldien aurkezpenak beste hizkuntzetan ere egitea beharrezko denean, hurrenkera hau erabiliko da: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez.

Ekitaldi elebidunetan, irizpide nagusia izango da hizkuntzen arteko oreka bermatzea. Egoerak ahalbidetzen duenean, hizkuntza bakoitzean eduki berak ez errepikatzen joko da; horretarako, hizkuntza bakoitzari eskainitako denboran edo testu kopuruan oreka kontuan hartzeaz gain, edukien banaketa ere orekatuko da.

Komunikaziorako teknologiek ematen dituzten aukerak baliatuko dira euskararen erabilera bermatzeko; esaterako, ahozko zuzeneko komunikazioan hizkuntza bat erabiltzea eta euskarri informatikoan bestea. Banatu beharreko dokumentazioa euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan banatuko da.

Ekitaldiaren edo jardueraren izaerak aldibereko interpretazioa eskatzen duenean, alde zuzenetik ongi zehaztuko dira interpretazioan izango diren hizkuntzak, eta interpretazio lana egiteko behar diren baliabideez hornitutako areto bat prestatuko da.

- Gaztelaniaz eskaintzen diren jardueretan, euskaraz ere egingo da aurkezpena, eta euskarazko sarrera egingo zaio ekitaldiaren atal bakoitzari. Ele bietan egingo dira jardueraren publizitatea eta jardueran banatzen diren dokumentu idatziak.

Servicios Funerarios Donostia – San Sebastián, SA designará para participar en tales eventos a personas con un adecuado nivel de euskera.

b) En las actividades de todo tipo organizadas por los distintos departamentos de Servicios Funerarios Donostia – San Sebastián, SA (actuaciones, cursos, talleres, jornadas, conferencias, mesas redondas, fiestas, visitas guiadas, exposiciones...) se adoptarán medidas para la promoción del euskera.

c) Las medidas para la promoción del euskera en los actos públicos y actividades a los que afecta el Plan de Euskera de Servicios Funerarios Donostia – San Sebastián, SA, son los siguientes:

- Servicios Funerarios Donostia – San Sebastián, SA organizará habitualmente en euskera las actividades dirigidas a niños y niñas, a adolescentes y jóvenes. No obstante, atendiendo a los objetivos, los temas o los receptores de la actividad, se podrán realizar en castellano o en el idioma original, garantizando en todo caso el cumplimiento de los derechos lingüísticos de los mismos.

- Cuando haya que utilizar las dos lenguas oficiales en los actos o actividades, se hará en este orden: primero en euskera y después en castellano. Si el acto es en Iparralde, primero en euskera y después en francés. Cuando además de las dos lenguas oficiales también sea necesario utilizar otras lenguas en la presentación de los actos, se seguirá este orden: euskera, castellano, francés e inglés.

En los actos bilingües, el criterio principal será garantizar el equilibrio entre ambas lenguas. Cuando la situación así lo permita, se tenderá a no repetir los mismos contenidos en ambas lenguas; para ello, se equilibrará tanto el tiempo y la cantidad de texto dedicados a cada lengua como la distribución de los contenidos.

Se aprovecharán las posibilidades que ofrecen las tecnologías de la comunicación para garantizar el uso del euskera; por ejemplo, combinar una comunicación oral realizada en una lengua con una exposición en soporte informático realizada en la otra lengua. En caso de que se distribuya alguna documentación, estará redactada en euskera o en las dos lenguas oficiales.

Si la naturaleza del acto requiere del servicio de interpretación simultánea, se definirán claramente y de antemano los idiomas de interpretación y se dispondrá una sala dotada con los recursos necesarios para desarrollar dicha función.

- En las actividades que se ofrezcan en castellano, se realizará la presentación también en euskera y se hará una breve introducción en euskera en cada



- Jarduera ele bietan egin arren, bi hizkuntzak emanaldi bakarrean eskaintzen ez direnean, aukera hauek izango dira kontuan:

- Gutxienez emanaldien erdia euskaraz egingo da.
- Euskarazko emanaldia egun eta ordu egokian eskainiko da.

- Ekitaldiak edo jarduerak zein hizkuntzatan izango diren zehaztuko da publizitate eta jakinarazpen guztietan.

1.3. Ingurune digitala

1.3.1. Webgune, sare sozial eta APPen edukia

Donostia Hileta Zerbitzuak, SAren Internet, sare sozial eta mugikorretako aplikazioetako edukiak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz kontsultatzeko eta izapideak egiteko moduan egongo dira.

1.3.1.1. Webguneak

Donostia Hileta Zerbitzuak, SAren webguneetako hasierako hizkuntza euskara izango da eta aukera egongo da gaztelania eta, hala badagokio, gainerako hizkuntzak hautatzeko. Webgune eleaniztunetan hizkuntzak hurrenkera honetan eskainiko dira: euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa.

Internet sarearen bidez egin daitezkeen izapideak euskaraz eta gaztelaniaz egiteko moduan egongo dira.

Euskarazko orrietan txertatzen diren estekak, aukera dagoen guztietan, euskarazko orrietara bideratuko dira. Era berean, erantsitako dokumentuen izenak eta edukia euskaraz idatziko dira.

Euskaraz sortuko dira webguneetako eta web orrietako helbideak.

Donostia Hileta Zerbitzuak, SAren webgune eta helbide elektronikoek .eus domeinua izango dute.

1.3.1.2. Sare sozialak

Sare sozialetan, kontu elebiduna dagoenean, euskarazko kontu bat sortuko da aukera dagoen guztietan.

Sare sozialetako kontu elebidunetan, testua mezu bakarrean doanean, euskara gainean idatziko da; eta bi mezutan doanean lehenik gaztelaniazko mezua idatziko da, eta, jarraian, euskarazkoa, euskarazkoa aurretik bistaratu dadin.

apartado del acto. La publicidad del acto y los documentos distribuidos en el mismo se realizarán en bilingüe.

- En el caso de actividades bilingües, cuando los dos idiomas no se ofrezcan en la misma actuación, se tendrán en cuenta las siguientes opciones:

- La mitad, al menos, de las actuaciones o sesiones se realizarán en euskera.
- Las actuaciones o sesiones en euskera se ofrecerán en días y horarios adecuados.

- En la publicidad y comunicaciones de los actos o las actividades se dará a conocer el idioma en que se realizarán los mismos.

1.3. Entorno digital

1.3.1. Contenido de las páginas web, redes sociales y APPs

Los contenidos de titularidad de Servicios Funerarios Donostia – San Sebastián, SA en Internet, las redes sociales y las aplicaciones de los teléfonos móviles estarán disponibles en euskera o en euskera y castellano para su consulta y para la realización de trámites.

1.3.1.1. Páginas web

La lengua inicial de las páginas web de Servicios Funerarios Donostia – San Sebastián, SA será el euskera y se dispondrá de la opción de seleccionar la versión en castellano y, en su caso, en otros idiomas. En las páginas web multilingües los idiomas se ofrecerán en el siguiente orden: euskera, castellano, francés e inglés.

Los trámites que se pueden llevar a cabo mediante Internet deberán poder realizarse en euskera y castellano.

Los enlaces insertados en las páginas en euskera se dirigirán, siempre que sea posible, a las páginas en euskera. Así mismo, los nombres y el contenido de los documentos anexos se escribirán en euskera.

Los sitios web y las direcciones de las páginas web se crearán en euskera.

Los sitios web y las direcciones de correo electrónico de Servicios Funerarios Donostia – San Sebastián, SA tendrán el dominio .eus.

1.3.1.2. Redes sociales

Cuando la cuenta en las redes sociales sea bilingüe, se creará una cuenta en euskera, siempre que sea posible.

En las cuentas bilingües de las redes sociales, cuando el texto vaya en un solo mensaje, el euskera se escribirá en la parte superior; y cuando vaya en dos mensajes se escribirá primero el mensaje en



Kanpoko gaztelaniazko mezu bat gure kontuan txertatzen dugunean, euskarazko aurkezpen hitzak gehituko dira.

1.3.1.3. Mugikorretarako APPak

Donostia Hileta Zerbitzuak, SAren mugikorretarako aplikazioak (APP) bi hizkuntza ofizialetan egongo dira erabilgarri herritarren esku jarri baino lehen. Euskara aukeratuz gero, komunikazio eta agiri oro (e-mailak, fakturak...) euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan bidaliko dira (ikus xehetasun gehiago IV. Eranskinean).

1.3.1.4. Helbide elektronikoak

Helbide elektronikoak euskaraz sortuko dira eta euskaraz izendatuko dira helbide elektronikoen multzoak.

2. Bezeroekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko harremanak

2.1. Bezeroekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan

2.1.1. Idatzizko harremanak

Donostia Hileta Zerbitzuak, SAk euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz eskainiko du herritarrei berariaz zuzendu beharreko idatzi oro (baimenak, lagapenak, ebazpenak...), eta laneko dokumentuen sortze hizkuntza euskara izan dadin bultzatuko du.

Herritarrak edo dagokion entitateak Donostia Hileta Zerbitzuak, SArekiko harremanetan euskaraz jardutea hautatu duenean euskarazko testuak erabiliko dira.

Tramitazio elektronikoa herritarrak hautatzen duen hizkuntzan egingo da, euskaraz edo gaztelaniaz. Nolanahi ere, tramitazioaren azken jakinarazpen, ebazpen edo ziurtagiria testu estandarizatua denean, sistemak aukera emango dio herritarrari agiri elebidunak ere jasotzeko.

2.1.2. Euskarazko eskaerari euskaraz emandako erantzunak

Herritarrengandik dokumentu bat euskaraz jasotzen bada, euskaraz erantzungo da. Bi hizkuntzatan jasotzen bada, bi hizkuntza ofizialetan erantzungo da, eta gaztelaniazko komunikazioei, oro har, bi hizkuntza ofizialetan erantzungo zaie.

2.1.2.1. Erregistroa

Erregistroari lotutako aplikazio informatiko guztietan

castellano y a continuación en euskera, a fin de que el euskera se muestre en primer lugar.

Cuando se inserte un mensaje externo en castellano en nuestra cuenta, se le añadirán unas palabras de introducción en euskera.

1.3.1.3. APPs para telefonía móvil

Las aplicaciones (APP) para móviles de Servicios Funerarios Donostia – San Sebastián, SA tendrán que ser utilizables en las dos lenguas oficiales antes de ponerlas a disposición de la ciudadanía. En caso de que se seleccione el euskera, todas las comunicaciones y documentos (e-mails, facturas...) se enviarán en euskera o en las dos lenguas oficiales (ver más detalles en el anexo IV).

1.3.1.4. Direcciones de correo electrónico

Las direcciones de correo electrónico se crearán en euskera y se asignarán nombres en euskera a los grupos de correos electrónicos.

2. Relaciones con las personas usuarias (personas físicas) y la ciudadanía

2.1. Relación escrita con la clientela (personas físicas) o la ciudadanía a la hora de dar servicios u ofrecer productos

2.1.1. Relaciones escritas

Servicios Funerarios Donostia – San Sebastián, SA ofrecerá toda la documentación expresamente dirigida a la ciudadanía (permisos, cesiones, resoluciones...) en euskera o en castellano, y trabajará por que el euskera sea la lengua de creación de documentos.

Cuando el/la ciudadano/a o entidad correspondiente opte por relacionarse en euskera con Servicios Funerarios Donostia – San Sebastián, SA, se utilizarán versiones en euskera.

La tramitación electrónica se realizará en la lengua elegida por la persona usuaria: euskera o castellano. En cualquier caso, el sistema ofrecerá a la ciudadanía la opción de recibir la notificación, resolución o certificación última de la tramitación, en caso de tratarse de textos estandarizados, en las dos lenguas.

2.1.2. Respuestas dadas en euskera a las solicitudes en euskera

Si se recibe de una ciudadana o ciudadano un documento en euskera, se responderá en euskera. Si se recibe en bilingüe se responderá en ambas lenguas y, en general, también se responderá en las dos lenguas oficiales a las comunicaciones escritas en castellano.

2.1.2.1. Registro



eremu bat dago sartzen edo irteten den dokumentazioa zein hizkuntzatan idatzita dagoen adierazteko. Gainera, eremu hori betetzea ezinbestekoa da.

Donostia Hileta Zerbitzuak, SAko erregistro administratiboetan, jatorrizkoak idatzita dauden hizkuntzan inskribatuko dira dokumentuak. Ele bietan idatzitakoak euskaraz erregistratuko dira.

2.2. Bezeroekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko ahozko harremana zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan

2.2.1 Harrera

Euskara eta gaztelania izango dira herritarrei zerbitzua emateko hizkuntzak Donostia Hileta Zerbitzuak, SAren zuzendaritza, jarduera, ekimen eta bulego fisiko nahiz birtual guzti-guztietan. Donostia Hileta Zerbitzuak, SAK herritarrekin dituen harreman mota guztietan bermatu beharko da bi hizkuntza ofizialen erabilera, herritarren hizkuntza hautua ziurtatzeko. Donostia Hileta Zerbitzuak, SAren eginkizuna izango da behar diren neurriak hartzea hori bermatzeko.

2.2.2. Telefonoz, online eta aurrez aurre

Donostia Hileta Zerbitzuak, SAko langilea herritarrari lehenik euskaraz zuzenduko zaio, bai aurrez aurreko harremanetan bai telefonozkoetan, eta gero herritarrak hautatzen duen hizkuntzan jarraituko du, herritarrak hizkuntza ofizialak erabiltzeko daukan aukera eskubidea bermatuz.

Harrera egiteko erabiltzen diren ahozko mezuak (gailu automatikoz, telefono bidezko informazio zerbitzuen bidez eta abarrez emandakoak) euskaraz eta gaztelaniaz emango dira, hurrenkera zehatz horretan.

2.2.3. Euskarazko eskaerari euskaraz emandako erantzunak

Aurrez aurre edo telefonoz Donostia Hileta Zerbitzuak, SAra euskaraz jotzen duen herritarrari euskaraz erantzungo zaio.

II. ARDATZA: LAN HIZKUNTZA

3. Barne-komunikazioa eta lan-tresnak

3.1. Lanari lotutako hizkuntza paisaia

En todas las aplicaciones informáticas vinculadas al registro existe un campo en el cual se indica en qué lengua o lenguas tiene entrada o salida la documentación. Además, será obligatorio cumplimentar dicho campo.

La inscripción de los documentos en los registros administrativos de Servicios Funerarios Donostia – San Sebastián, SA se realizará en la lengua o lenguas en las que estén redactados estos. Los documentos redactados en bilingüe serán registrados en euskera.

2.2. Relaciones verbales con la clientela (personas físicas) o la ciudadanía a la hora de dar servicios u ofrecer productos

2.2.1. Atención

El euskera y el castellano serán las lenguas de servicio a la ciudadanía en todos los departamentos, actividades, iniciativas y oficinas tanto físicas como virtuales de Servicios Funerarios Donostia – San Sebastián, SA. El uso de las dos lenguas oficiales tendrá que estar garantizado en todo tipo de relación entre Servicios Funerarios Donostia – San Sebastián, SA y la ciudadanía, para asegurar la opción lingüística de esta última. Corresponderá a Servicios Funerarios Donostia – San Sebastián, SA tomar las medidas necesarias para garantizar esa opción.

2.2.2. Relaciones telefónicas, online y presenciales

El personal de Servicios Funerarios Donostia – San Sebastián, SA se dirigirá al ciudadano o a la ciudadana primero en euskera, tanto en las relaciones presenciales como en las telefónicas, y continuará en la lengua seleccionada por la persona atendida, para garantizar el derecho de ésta a usar las lenguas oficiales.

Los mensajes orales utilizados en la atención oral (ofrecidos por medio de dispositivos automáticos, servicios de información telefónicos, etc.) se ofrecerán en euskera y castellano, en ese mismo orden.

2.2.3. Respuestas dadas a las solicitudes en euskera

A la ciudadanía que se dirija a Servicios Funerarios Donostia – San Sebastián, SA en euskera de modo presencial o por teléfono se le responderá en euskera.

EJE II: LENGUA DE TRABAJO

3. Comunicación interna y herramientas de trabajo

3.1. Paisaje lingüístico ligado al trabajo



3.1.1. Lanari lotutako hizkuntza paisaia

Lanari lotutako errotulazio finkoa (apal, artxibategi, karpeta eta abarretan jartzen diren etiketak ...) eta noizbehinkako oharrak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira, oro har.

Lanarekin lotutako errotulu horiek euskaraz idatziko dira euskarazko ataletan.

3.2. Idatzizko komunikazio bertikala eta horizontala

3.2.1. Informaziorako edota komunikaziorako tresnak

Donostia Hileta Zerbitzuak, SAK kudeatutako komunikazio tresnetan (ohar eta iragarki taulak, zirkularrak, intranet...) bi hizkuntza ofizialak erabiliko dira euskarari lehentasuna emanez.

Langileek barne izapideak egiteko dauzkaten baliabideetan (aplikazioak, inprimakiak...) izapide horiek euskaraz eta gaztelaniaz egiteko modua egongo da.

3.2.2. Lan bileretako idatziak

Donostia Hileta Zerbitzuak, SAKo lan bileretan hizkuntza kudeatzeko irizpide hauek erabiliko dira:

- a) Donostia Hileta Zerbitzuak, SAKo atalek antolatzen dituzten bileretan, hizkuntza nola kudeatuko den aldeaz aurretik aztertuko da. Bilera zein hizkuntzatan egingo den zehaztu ostean erabakiko da bilera deia, bilerarako euskarriak eta dokumentazioa zein hizkuntzatan eman.
- b) Bilera egindako hizkuntzan edo hizkuntzetan jasoko da bileraren akta. Bertan esandako hitzak jaso behar izanez gero, parte hartzaile bakoitzak erabilitako hizkuntzan transkribatuko dira.

3.2.3. Erakundearen barne harremanetarako idatziak

a) Donostia Hileta Zerbitzuak, SAK euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egingo ditu barne harremanetarako idatziak, eta laneko dokumentuen sortze hizkuntza euskara izan dadin bultzatuko du.

Administrazio atalen arteko harremanetan euskarazko komunikazioak sustatuko dira.

Barruko dokumentuak, komunikazioak eta egintza administratiboak euskaraz idatziko dira hartzailearen edo hartzaileen ulermen maila bermatuta dagoenean; hargatik eragotzi gabe interesdunei

3.1.1. Paisaje lingüístico ligado al trabajo

Los rótulos fijos (etiquetas colocadas en estanterías, archivadores, carpetas...) y avisos puntuales ligados al trabajo se escribirán generalmente en euskera o en euskera y castellano.

Dichos rótulos se escribirán en euskera en las unidades en euskera.

3.2. Comunicación escrita vertical y horizontal

3.2.1. Instrumentos para la información o la comunicación

En los instrumentos de comunicación gestionados por Servicios Funerarios Donostia – San Sebastián, SA (tablones de anuncios y avisos, circulares, intranet...) se utilizarán las dos lenguas oficiales, dando prioridad al euskera.

En los recursos que el personal tiene a su disposición para llevar a cabo los trámites internos (aplicaciones, impresos...) existirá la posibilidad de hacer dichos trámites en euskera y castellano.

3.2.2. Los documentos escritos de las reuniones de trabajo

En las reuniones de trabajo de Servicios Funerarios Donostia – San Sebastián, SA se seguirán los siguientes criterios a la hora de gestionar los idiomas:

- a) En las reuniones organizadas por los departamentos de Servicios Funerarios Donostia – San Sebastián, SA se estudiará de antemano cómo gestionar los idiomas. Una vez se haya decidido en qué lengua se llevará a cabo la reunión, se decidirá en qué lengua se distribuirán la convocatoria, los soportes y la documentación de la reunión.
- b) El acta de la reunión se escribirá en la lengua o lenguas en que se lleve a cabo la reunión. En el supuesto de que haya que recoger lo dicho en la reunión, se transcribirá en la lengua utilizada por cada participante.

3.2.3. Los escritos de las relaciones internas

a) Servicios Funerarios Donostia – San Sebastián, SA elaborará en euskera o en euskera y castellano la documentación escrita destinada a las relaciones internas, y trabajará por que el euskera sea la lengua de creación de los documentos de trabajo.

Se promocionarán las comunicaciones en euskera en las relaciones entre las unidades administrativas.

Los documentos, comunicaciones y actos administrativos internos, se escribirán en euskera cuando esté garantizada la comprensión de la persona o personas receptoras; sin perjuicio de la



jakinarazpenak eta komunikazioak egiteari buruzko hizkuntza jarraibideak geroago aplikatzea.

b) Udal langile guztiei (hartzaile jakinik gabe) bidalitako dokumentuak, mezuak, abisuak, jakinarazpenak, gutunak... bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, euskarazkoari lehentasuna emanez.

Mezu pertsonalizatuak, hartzailearen ulermena bermatua dagoenean, euskaraz idatziko dira.

c) Euskarazko ataletan euskara izango da laneko hizkuntza nagusia, erakunde barrurako idatziak egiteko eta bideratzeko garaian.

Euskarazko ataletara zuzendutako mezuak eta dokumentazioa euskaraz idatziko dira.

Euskarazko atal batetik euskaraz sortutako dokumenturen bat jasotzen badu, hartzailearen arduraren izango da hura itzultzeko bidaltzea eta, behar denean, erantzuna euskaraz bidaltzeko bitartekoak jartzea. Edonola ere, ezin izango dio igorleari itzulpena eskatu.

3.3. Ahozko komunikazio bertikala eta horizontala

3.3.1. Erakundearen barruko lan bileretako ahozko harremanak

Donostia Hileta Zerbitzuak, SAko lan bileretan hizkuntza kudeatzeko irizpide hauek erabiliko dira:

- Donostia Hileta Zerbitzuak, SAko atalek antolatzen dituzten bileretan, hizkuntza nola kudeatuko den aldeaz aurretik aztertuko da. Bilera zein hizkuntzatan egingo den zehaztu ostean erabakiko da bilera deia, bilerarako euskarriak eta dokumentazioa zein hizkuntzatan eman.
